# Bestelako Xedapenak

## EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

**869**

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 27koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen dekretu-proiektuari entzunaldi-tramitea emateko dena.

Ekonomia eta Ogasun Sailak, Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, dekretu-proiektua egin du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazteko. Proiektu hori Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztutakoaren arabera tramitatu behar da.

Aipatutako legearen 8.1 artikuluaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Proiektuan adierazitako dekretuak gai horren inguruan indarrean dagoen dekretua ordeztuko luke (161/1998 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituena). Izan ere, araudia egokitu egin behar da, diru-sarrera publiko horien kudeaketa hobetzearren. Hala eta guztiz ere, zerga-presioa handituko ez duen arren, dekretu-proiektuan araututako salbuespenen subjektu pasibo izan daitezkeen herritar guztiei eragingo die.

Kontuan hartuta herritar horiek ez daudela subjektu pasibo gisa biltzen edo ordezkatzen dituen erakunde edo elkarteren batean ere, herritarrei zuzenean entzunez egin beharko da entzunaldia, 8/2003 Legearen 8.3 artikuluari jarraituz. Horretarako nahikotzat jo da hogei asteguneko epea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren 11.1.a) artikuluarekin bat etorriz, honako hau

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

**869**

RESOLUCIÓN de 27 de enero de 2010, del Viceconsejero de Hacienda y Finanzas, por la que se somete a trámite de audiencia el proyecto de Decreto por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

El Departamento de Economía y Hacienda junto con el Departamento de Justicia y Administración Pública y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, ha elaborado un proyecto de Decreto por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, proyecto que ha de tramitarse conforme determina la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de disposiciones de carácter general.

De acuerdo con el artículo 8.1 de la citada Ley, las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos o ciudadanas serán objeto de trámite de audiencia. El Decreto proyectado sustituiría al vigente Decreto sobre la materia (Decreto 161/1998 de 21 de julio por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos) y responde a la necesidad de adaptar la normativa para mejorar la gestión de estos ingresos públicos. Pese a ello y a que no supondrá un aumento de la presión fiscal, afectará a la generalidad de los ciudadanos que pueden constituirse en sujetos pasivos de las exacciones reguladas en el proyecto de Decreto.

Teniendo en cuenta que dichos ciudadanos no están integrados en organización o asociación alguna que los agrupe o represente por su condición de sujetos pasivos, la Audiencia debe realizarse directamente, de acuerdo con el artículo 8.3 de la Ley 8/2003, considerándose suficiente el plazo de veinte días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de de esta resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 11.1.a) del Decreto 568/2009 de 20 de octubre por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Economía y Hacienda,

EBATZI DUT:

1.– Entzunaldi-tramitea emango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazteko dekretu-proiektuari. Hogei asteguneko epea ezarriko da horretarako, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2.– Edozein pertsona fisikok zein juridikok, publikok nahiz pribatuk kontsulta dezake aurreko zenbakiak aipatzen duen dekretu-proiektuaren espedientea, baldin eta eragin litekeen bidezko interesen baten titularra dela uste badu. Kontsulta hori egiteko epea lehenago adierazitakoa izango da, eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) egin ahal izango da. Epe eta toki berean aurkez daitezke egokitzat hartu diren alegazioak, dokumentuak nahiz egiaztagiriak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 27a.

Ogasun eta Finantzetako sailburuordea,
FERNANDO DE LA HUCHA CELADOR.

RESUELVO:

1.– Someter a trámite de Audiencia, por un plazo de veinte días hábiles, a partir del día siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, el proyecto de Decreto por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos.

2.– El expediente del proyecto de Decreto al que se refiere el numero anterior podrá ser consultado por todas las personas físicas y jurídicas, públicas y privadas, que se consideren titulares de un interés legítimo que pudiera resultar afectado, en la Dirección de Servicios del Departamento de Economía y Hacienda, sita en la calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 de Vitoria-Gasteiz, en el plazo anteriormente citado. En el mismo plazo y lugar se podrán presentar las alegaciones, documentos y justificantes que se estimen convenientes.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2010.

El Viceconsejero de Hacienda y Finanzas,
FERNANDO DE LA HUCHA CELADOR.